

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

R11/2009 ebazpena

18/2008 espedientea

Gasteizen, 2009ko ekainaren 19an

Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente duenak, eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador jaunak batzordekide dituenak, ondoko

ERABAKIA

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren aurka planteatutako gatazka negatibo honen inguruan: bi administrazioetatik zein den eskuduna "AAAAAAA, SL" entitateak, IFZ..... zenbakidunak, 2006ko ekitaldiko BEZarengatik erreklamatutako itzulketa egiteko. Gatazka hori 18/2008 espediente zenbakiarekin ari da izapidetzen Arbitraje Batzordean.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau 2008ko maiatzaren 13an planteatu zuen idatziz Gipuzkoako Foru Aldundiak. Idatzi horretan jarraian laburtzen diren aurrekariak azaltzen dira:

1a) 2004ko apirilaren 15ean, "....." entitateak, IFK zenbakidunak (aurrerantzean "entitatea") Tarragonatik Gipuzkoara aldatu zuen sozietate helbidea, eta une horretatik aurrera Gipuzkoan hasi zen tributatzeko Balio Erantsiaren gaineko Zergarengatik, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

arteko Ekonomia Itunak, maiatzaren 13ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 27.Bat.hirugarrena eta 43.7 artikuluetan jasotakoari jarraiki.

2a) Sozietate helbidea aldatu arren, 2005eko urtarrilaren 3an entitateak Zerga Administrazioaren Estatu Agentzian aurkeztu zuen, epe barruan, 2004ko lehen bi hiruhilekoetako BEZaren urteko aitorpen-laburpena (390 eredia), 632.788,87 euro itzuli beharra ekarri zuena.

3a) ZAEAREN Gipuzkoako Ordezkaritzako Zerga Bulego Kudeatzailearen buruak behin-behineko likidazioa egitea erabaki zuen 2006ko apirilaren 26an, eta, haren arabera, ez zen ezertxo ere itzuli behar. Erabaki hori aurkeztutako idatziak leialki laburbiltzen dituen funts juridiko hauetan oinarritu zen:

Bat. Entitate aitortzaileak 2003an ez duenez gaindu 6.000.000 euroko eragiketa bolumena, 2004ko ekitaldian bere zerga egoitzari dagokion administrazioan soilik ordaindu behar ditu zergak, halaxe jasotzen baitu Ekonomia Itunak 27.Bat.Hirugarrena artikuluan.

Bi. Pertsona juridikoen helbide aldaketak (Ekonomia Itunak 43.7 artikuluan pertsona fisikoentzat xedatzen duena alderantziz aplikatuta), berehala ditu eraginak, eta orduantxetik bete behar dira zerga obligazioak helbide berriari dagokion administrazioan.

Hiru. Ez BEZaren 37/92 Legeak eta ez BEZaren 102/1992 Foru Dekretuak ez dute ezartzen helbidea lurralde erkidetik foru lurraldera edo alderantziz aldatzeagatik ekitaldia banatu daitekeenik likidazioa zatikatzeko. Aitzitik, abiapuntua hilean edo hiru hilean behin aurkeztzen diren aitorpen-likidazioak dira, nahitaez urteko aitorpen-laburpen bakarrean sartu behar direnak (37/1997 Legearen 164.6.Bat artikulua), eta aitorpen horretatik abenduaren 31n dagoen saldoa itzultzeko eskaera bakarra etorri daiteke (37/1992 Legearen 115.Bat artikulua).

Lau. Ekonomia Itunaren Legeak ez du eragozten konpentsatu beharreko saldoak administrazio batetik bestera aldatzea, eta ez du ulertzen helbidea lurralde

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

erkidetik foru lurraldera edo alderantziz aldatzen denik jarduera irteerako lurraldean uzten delako jarduera hori lurralde berrian hasteko.

4a) Estatuko Administrazioak ezezkoa eman eta gero, entitateak 2006ko BEZaren bigarren hiruhilekoaren aitoren-likidazioa aurkeztu zuen Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuan (300 eredua), eta bertan 632.788,87 euroko zenbatekoa sartu zuen aurreko ekitaldietatik konpentsatu beharreko kuotengatik. Zenbateko hori 2006ko ekitaldiko urteko aitoren-likidazioan ere sartu zuen, Departamentu horretan aurkeztutako 390 ereduan hain zuzen.

5a) Estatuko Administrazioari 2008ko martxoaren 14an jakinarazi zitzaion martxoaren 13ko 254/2008 Foru Aginduaren bidez, adierazi zen Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zeukala eskumenik entitateak eskatutako itzulketa egiteko, eta horretarako eskumena Estatuko Administrazioari zegokiola.

6a) 2008ko apirilaren 17ko idazkiaren bidez, ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari bereziak adierazi zuen ez dela bidezkoa Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumenik ez duela xedatzea; horren inguruan, adierazi zuen BEZa zerga bakarra dela lurralde erkidean eta foru lurraldean, eta zerga-gaia ezin zatika daitekeela ez geografikoki eta ez denbora aldetik. Ekitaldiko azken zergaldian soilik da bidezkoa zerga itzultzeko eskaera. Helbidea aldatzen bada eskumena ere aldatzen da, baina horrek ez dakar ekitaldia zatikatzea.

7a) 2008ko maiatzaren 6ko bileran Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen gatazka hau Arbitraje Batzordeari aurkezte.

Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak arrazoiak planteatzeko idatzian Arbitraje Batzordeari eskatu dio eskumen gabekotzat jo dezala Gipuzkoako Foru Aldundiko zerga administrazioa 632.788,87 euroko saldo negatiboa itzultzeko, zeina "....." entitateak sartu baitu bai Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2006ko bigarren hiruhilekoaren aitoren-likidazioan eta bai urteko aitoren laburpenaren 390 ereduan. Eta arrazoia da saldo negatibo hori aurreko aldietan jasandako BEZaren ondorioa dela eta aldi horietan Estatuko Administrazioari zegokiola zerga hori ordainarazteko eskumena.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

2. 2008ko irailaren 12ko bileran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen gatazka hau tramitatzea eta hura planteatu izana Estatuko Administrazioari jakinaraztea. Jakinarazpena 2008ko urriaren 3an egin zitzaion.

3. ZAEAk zuzendari nagusiaren 2008ko urriaren 30eko idazkiaren bidez aurkeztu zituen alegazioak, 2008ko azaroaren 3an erregistratuak. Idazki horretan ageri diren izatezko aurrekariak osatu egiten dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiaren idatzian azaldutakoak, datu hauekin:

1a) 2006ko ekainaren 8an, entitateak berraztertze errekurtsoa jarri zuen ZAEAREN Gipuzkoako Ordezkaritzako Zergak Kudeatzeko Bulegoak 2006ko apirilaren 26an egindako behin-behineko likidazioaren aurka. Errekurtso hori atzera bota zen, 2006ko uztailaren 21eko erabakiaren bidez.

2) Aurreko erabakiaren aurka, entitateak erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu zuen 2006ko abuztuaren 25ean Euskadiko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, baina auzitegiak atzera bota zuen 2007ko urtarrilaren 31ko ebazpenaren bidez, argudio gisa erabili ZAEAk Gipuzkoan duen Ordezkaritzak ez duela eskumenik BEZa itzultzeko, BEZaren Legeak ez baitu onartzen itzuli gabeko saldoengatik "banatutako ekitaldiak" zergadunaren zerga helbidea aldatu aurretik likidatzea; beraz, entitateak 2004ko laugarren hiruhilekoarengatik administrazio eskudun berriari aurkeztutako likidazioan sartu behar zituen saldo horiek. Inon ez da ageri ebazpen horren kontrako errekurtsorik jarri zuenik.

Jarraian, ZAEAk bere iritzia zuzenbideko zer oinarritan funtsatu duen azaltzen du. Lehenengoan, gatazkaren xedea zein den adierazten du, hau da, "zehaztea zer administrazioak duen eskumena zergapekoak (Entitatea) (IFK: BNNNNNNNN) 2004ko BEZa dela-eta eskatutako 632.788,87 euroak ordainarazteko eta itzultzeko. Bestalde, ZAEAk dio orain ez dela zalantzan jartzen zergapekoak helbidea non eta noiz ezarri duen, hau da, onartzen dira aitortutako helbideak, aitortutako uneetan; alegia, entitatea sortu zenetik 2004-04-15era arte, bai zerga helbidea eta bai sozietate helbidea lurralde erkidean egon ziren, eta ordutik aurrera Gipuzkoako foru

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

lurraldean. Auzi honen xedea, beraz, honetan datza soil-soilik: erabakitzea zein administrazioek duen eskumena adierazitako helbide aldaketa hori egin zenean jasan ziren eta oraindik konpentsatzeko dauden kuoten BEZa bere gain hartzeko.

4. ZAEAk bere idazkian azaltzen dituen zuzenbideko oinarrietan bigarreanean, auzia ezin onar daitekeela alegatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak, abenduaren 28ko 2007/28 Errege Dekretu bidez onartutakoak, 9. artikuluko bigarren paragrafoan xedatzen duena oinarritzat hartuta. Izan ere, bertan jasotzen denez, “ez da inola ere aurkeztu ahal izango gatazkarik justizia-epaitegien aldetik jada ebatzita dauden edo oraindik ebatzteke dauden gaiei buruz.” ZAEAREN ustez, auzi honen zioaz jadanik erabakia emana du Euskadiko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak, 2008ko urtarrilaren 31ko ebazpenaren bidez —aurrekari hauetako 3. apartatuan aipatu da—, eta erabaki horri gorago aipatutako erregelamenduzko prezeptua aplikatu behar litzaioke, auzitegi ekonomiko-administratiboak justizia auzitegiekin parekatuta baitaude. ZAEAREN iritziz, tesi hori Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 2000ko martxoaren 21ean emandako epaiak berretsi du (C-110/98 eta C-147/98 gai metatuak); izan ere, Kataluniako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa organo jurisdikzionaltzat hartu zuen epaitu aurreko arazo bat planteatzeko.

5. Bere alegazio-idazkian ematen dituen zuzenbideko oinarrietako gainerako ataletan, eztabaidaren muinari buruzko argudioak azaltzen ditu ZAEAk, eta idazkiaren amaieran Arbitraje Batzordeari eskatzen dio honako hau erabaki dezala:

- “gatazka ez onartzea, zuzenbideko bigarren oinarrian adierazitako arrazoiarengatik.

- modu subsidiarioan, auzia onartuz gero, atzera botatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa, zuzenbideko hirugarren eta laugarren oinarrien arabera, eta Gipuzkoako Foru Ogasuna jotzea zerga administrazio eskuduntzat BEZaren 2004ko 2., 3. eta 4. hiru hilekoetako kuotak ordainarazi eta itzultzeko. Hori, ordea, ez da eragozpen izango behar den eran egiaztatzeko kuota horiek zergaren araudian ezarritako baldintza objektibo eta formalak betetzen dituztela kengarriak izateko.”

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

6. Espedientea amaituta eta auzian dauden administrazioak eta entitatea interesduna jakinaren gainean jarrita, administrazioek alegazioak aurkeztu zituzten egun desberdinetan: 2009ko martxoaren 2an Estatuko Administrazioak, eta 2009ko martxoaren 3an Foru Administrazioak. Arbitraje Batzordean 2009ko martxoaren 3an eta 4an erregistratu ziren hurrenez hurren. Entitateak ez du alegaziorik aurkeztu.

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Auzi honen muinean sartu aurretik, beharrezkoa da aztertzea ZAEAK aurrez jarritako eragozpena, hau da, Euskadiko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak orain guk erabaki behar dugun kontu honen gainean ebazpen bat eman izana. Berriro ere errotik baztertu behar dugu ZAEAK lehendik ere alegatua duen onartezintasun kausa hau. Beste ebazpen batzuetan bezala (2009ko urtarrilaren 28ko 2/2009 Ebazpenaren zuzenbideko 2. oinarria eta martxoaren 6ko 4/2009 Ebazpenaren zuzenbideko 3. oinarria), soil-soilik adieraziko dugu ez dela interpretazio ahalegin handirik egin behar ondorioztatzeko auzitegi ekonomiko-administratiboak, zeinahi administrazioak izanik ere, ezin direla inola ere sartu “Justizia Auzitegi” izenaren barruan, nabarmena baita organo administratiboak direla. ZAEAK alegatutako egitatea ez da ondorio horren kontrakoa, eta, gainerakoan, aski jakina da Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak auzitegi ekonomiko-administratiboen legitimazioa onartu duela epaitu aurreko auziak haren irizpean jartzeko.

2. Hauxe da Arbitraje Batzorde honek erabaki behar duen auziaren funtsa -eta horren gainean ez dago desadostasunik auzi honetako parte diren administrazioen artean—: erabakitzea administrazio horietako zeinek duen eskumena entitateak 2004ko lehen biu hiruhilekoetako BEZa dela-eta ZAEARI aurkeztu dion urteko aitorten laburpenetik ateratako 632.788,87 euroko saldoa itzultzeko. Eztabaida sortu da entitateak lurralde erkidetik Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurraldera aldatu duelako helbidea. Aldaketa hori aurtengo apirilaren 15ean gertatu da, halaxe adierazi baitu ZAEAK 2008ko urriaren 30eko alegazio-idazkian. Helbide aldaketa horren ondorio gisa, eta aurreko urtean (2003an) entitatearen eragiketa guztien bolumena

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

ez zenez izan sei milioi eurotik gorakoa, entitatea Gipuzkoako Foru Aldundian hasi zen zergak ordaintzen, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Itunak 27.Bat.Hirugarrena artikuluan xedatutakoaren arabera (orduko idazkerari jarraiki). Bi administrazioek baztertu zituzten entitateak aurkeztutako itzulketa eskaerak, eta halaxe sortu zen eskumenen gatazka negatibo hau.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak, gatazkaren aurkezpen idazkian, aurreko paragrafoan adierazitako entitatearen helbide aldaketa horrek zer ondorio izan dituen azaldu eta gero, adierazten du ondorio horiek helbidea aldatzeaz bat sortu zirela, Ekonomia Ituneko 43.Zazpi artikulua pertsona fisikoentzat xedatzen duena analogiaz aplikatuta. Beraz, *a sensu contrario*, helbidea aldatu aurretik eskumena zuen administrazioari zegokion ordura arteko eskumena ere, kasu honetan Estatukoari.

Bere arrazoibidearekin jarraituz, hauxe dio Gipuzkoako Foru Aldundiak. “Balio Erantsiaren gaineko Zerga bat-batean sortzen den zerga denez gero, subjektu pasiboak helbidea aldatu arte sortu diren BEZ guztiak sartu behar ditu administrazio eskudun bakoitzean aurkezten dituen aldizkako aitorten-likidazioetan, eta kuota horiek kenkarirako eskubidea ematen badiote, une horretara arte sortutakoak ere kendu ditzake. Hortik ateratzen den diferentzia “garbiak” esango du zenbat ordainarazi behar den Administrazio bakoitzari dagokionez.”

Segidan, Foru Aldundiak, bere tesiaren alde egiteko, hiru ebazpen aipatzen ditu bere idazkian, errekursoak ebazteko ahalmena duten hiru organo administratibok emanak. Lehenengoa Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboarena da, 2003ko maiatzaren 8koa (415/2002 zenbakiko erreklamazioa). Erreklamazio horretan, maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onartutako Ekonomia Ituneko 29.Sei artikuluan oinarritzen da Auzitegia, eta hauxe ondorioztatzen du: “Ez dagokio Bizkaiko Foru Aldundiari erreklamaziogileak zerga helbidea Bizkaian ez zuen garaian sortutako kenkariak itzultzea...” Aipatutako prezeptu hori honelaxe idatzita zegoen:

“Kenkarien zenbatekoak sortutako kuotak gainditzen dituela-eta likidazioaldi bakoitzean sortutako kenkariak aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

egiterik izan ez duten subjektu pasiboek beren aldeko saldoa itzultzeko eska dezakete.

Foru aldundi bakoitzak edo, hala dagokionean, Estatuko Administrazioak egin beharko ditu bidezko itzulketak, dagokion zati proportzionalean”.

Aipatzekoa da transkribatutako prezeptu horretako bigarren paragrafoaren edukia gaur egungo Ekonomia Ituneko 29.Bost artikuluan jasota dagoela.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gatazkaren aurkezpen idazkian aipatzen duen bigarren ebazpen administratiboa Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 1997ko azaroaren 5ekoa da (berez, Zerga arloko Gaiak Informatu eta Ebazteko Organoa esan nahiko du), eta ebazpen horretan besteak beste dio ez dela bidezkoa aurreko urteetan konpentsatzeko dauden zenbatekoak zergadunak Nafarroako Foru Aldundian egin behar zuen laugarren hiruhilekoko aitopenera aldatzea, “horrek zerga zorra, kasu honetan negatiboa, administrazio batetik bestera aldatzea ekarriko lukeelako, araudia urratuta...”

Arabako Lege eta Administrazio Organoaren 2003ko urtarrilaren 31ko ebazpena ere 1981eko Ekonomia Ituneko prezeptu horretan oinarritzen da ondorio horretara iristeko.

Nahiz eta aurreko ebazpenek aurrekari gisa duten balioa oso handia ez izan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere idazkian haiek aipatzeak esan nahi du bere egiten dituela haietan agertzen diren tesiak eta argudioak.

Orobat, Foru Aldundiak dioenez, “subjektu pasibo batek zerga helbidea lurralde jakin batean zuenean jasandako BEZaren kuotak hartu eta zerga helbide fiskal berriko zerga administrazioaren aurrean aurkeztutako aitopenera-likidazioetara eramateak aldatu egingo luke Ekonomia Itunean aurreikusita dagoen eskumen ordainarazlea, zeren eta “ordainarazpen hori” murriztuta geratuko bailitzateke lehenago jasandako kuoten konpentsazioaregatik (azpimarra jatorrizkoa da).

Ondoren, Aldundiak dio Ekonomia Itunak eragotzi egiten duela jasandako BEZa administrazio batetik bestera aldatzea; izan ere, beste kasu batzuk alde batera utzita,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

non Ekonomia Itunak berariaz aurreikusten baitu zerga elementuak administrazio batetik bestera aldatzea (adibidez, konturako ordainketak), Ekonomia Itunean ez dago horrelakorik baimentzen duen xedapenik. “Bestelakorik xedatuko balu -dio Aldundiak-, zergapekoak modua izango luke administrazio batean eduki lezakeen kreditu fiskala beste administrazio batera aldatzeko, eta, modu horretan, administrazio bat bidegabeki aberastuko litzateke eta besteari arrazoirik gabe egingo litzaioke kalte; hori, baina, zuzenbidearen aurkakoa da ikuspuntu guztietatik, eta, ondorioz, Itunak ez du inola ere halakorik nahi, eta jaso ere ez du jasotzen.

Azkenik, Gipuzkoako Aldundiak hau argudiatzen du: “Ekonomia Itunaren 29. artikuluko seigarren apartatuan, [BEZa] ikuskatzeko eskumenen banaketari buruzkoan, ez da zehazten administrazioek ahalmenik daukatenik eskuduna beste administrazio bat zenean sortutako ‘kreditu fiskalak’ egiaztatzeko, eta, beraz, zuzenean onartzen dituzte; horrek, ordea, babesik gabe utz ditzake, ‘aurreko administrazio eskudunak’ ez baitu interes ekonomikorik hori egiaztatzen hasteko”.

4. ZAEAK, 2008ko urriaren 30ean aurkeztu eta Arbitraje Batzorde honetan azaroaren 3an erregistratutako idazkian, lehen-lehenik jasotzen du zer lege arau diren bere ustez aplikagarriak gatazka honi dagokionez, eta hauek aipatzen ditu: Ekonomia Itunaren 27.Bat.Hirugarrena, 43.Zazpi eta 29.Bost artikulua, BEZari buruzko 37/1992 Legearen 115.Bat artikulua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga horri dagokionez eduki berberarekin onartua duen 102/1992 Foru Dekretuko artikulua.

Aipatutako prezeptu horietatik, eta batez ere Ekonomia Itunaren 29.Bost artikulutik, ZAEAK ondorioztatzen du zein den erregela orokorra BEZaren “saldoak” (konpentsatu edo itzuli beharreko zenbatekoak) administrazioz aldatzeko: “Konpentsazioak edo itzulketak sortu diren administrazioen artean banatzen dira (*sic*) , eta, beraz, konpentsatu beharreko BEZaren saldorik ez da aldatu behar beste administrazio batzuetara.” Gero, idazki horretan bertan, ZAEAK arau orokor horren funtsa azaltzen du:

“Bestela, gerta liteke Ekonomia Itunaren Legeak ezarritako administrazioan ez beste batean aplikatzea zerga. Gainera, saldoak beste administrazio batera

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

aldatzeak arazo handi bat sortzen du, alegia, zergak konpentsatzen dituen administrazioak ezin egiazta dezakeela horien zenbatekoa; izan ere, konpentsatu beharreko saldoa sortu zenean beste administrazio batek zuen eskumena.

Bestalde, eragin anomaloak sortuko lirateke administrazio eskudunak urte batetik bestera aldatuko balira. Hala, esate baterako, subjektu pasibo batek urte batean bi administrazioetan (Estatukoan eta Nafarroakoan) ordaindu baditu zergak eta hurrengo urtean bost administrazioetan ordaindu behar baditu (aurreko bietan eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru aldundietan), ez dirudi arrazoizkoa denik, ez eta Ekonomia Itunaren Legearekin bat datorrenik ere, lehenengo ekitalditik konpentsatu beharreko saldoa bigarrenengan ere saldo horrekin batera zerikusirik izan ez zuten administrazioen artean banatzeak.”

Nolanahi ere, adierazitako arau orokor horrek topo egiten du, ZAEAREN iritziz, BEZAREN araudiarekin, konpentsatu beharreko BEZAREN saldoak aldatzeari edo ez aldatzeari buruz egiten den interpretazioak haren araberakoa izan behar baitu. Araudi horrek ez du aurreikusten zerga epealdiak zatituta likidatzea: saldoak aldatzeari edo ez aldatzeari buruzko edozein interpretaziok berekin badakar zerga likidatzea “likidazioaldiak zatikatuta”, ezin jo daiteke juridikoki zuzentzat, ez baitator BEZAREN araudiarekin bat. ZAEAK dioenez, “likidazioaldia ez zatitzeko” araua -eta, beraz, eransten dugu, horren esanahia, zeina ez baita agerikoa– BEZAREN Legeko 99. eta 115. artikuluen jokatik ondorioztatzen da; hain zuzen ere, artikuluko horien arabera, likidazioaldi bakoitzean jasandako kuotak sortutakoak baino gehiago badira, ondorengo aitorpen-likidazioetan konpentsa daitezke; eta azken likidazioaldiari dagokion aitorpen-likidazioan, aukera dago urte bakoitzeko abenduaren 31n alde dagoen saldoaren itzulketa eskatzeko. Ondorioz, ZAEAREN arabera, urteko likidazioaldi hori da, hain zuzen ere, itzulketa eskatzeari begira zatikatu ezin daitekeena.

ZAEAREN iritziz, saldoak administrazioez ez aldatzeko arau orokorrak badu salbuespen bat, hau da, arau horiek ez direla aplikatuko baldin eta haien aplikazioak

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

BEZaren arauak ez betetzea badakar, eta kasu horietako bat da, hain zuzen ere, eskuan dugun auzia. Kasu horietan saldoak administrazioz aldatzea onartuko ez balitz, BEZaren Legeko 99.Bost artikulua ezartzen duen konpentsazioa ukatuko litzaioke subjektuari. Helbidea aldatu den hiruhilekoan ez aurrekoan konpentsatu beharreko saldoa, ZAEAk dioenez, helbidea aldatu ondoren eskudun den administrazioan egin beharreko laugarren hiruhilekoko autolikidazioan sartu behar da. Izan ere, alde batetik, aldaketa hori ez da jarduera uztea —kasu horretan eskatu ahalko litzaioke aurreko administrazioari zerga itzultzeko—; eta, bestetik, kasu horietan ezin aurkez daitezke bi aitorten hiruhileko berean administrazio desberdinetan. Estatuko Administrazioaren iritziz, “zerga helbidearen aldaketak berekin badakar zerga administrazio eskuduna aldatzea, likidazioaldiko azken egunean helbide hori non zegoen, eta hango Administrazioari aurkeztu behar zaizkio autolikidazioak. Legez itzulketa eskatzeko aukerarik sortu ez duten aitorten konpentsatzeko dauden saldoak sartu beharko dira autolikidazio horietan.

Ekonomia Itunak 27.Bat.Hirugarrena artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, entitatearen 2003ko eragiketa bolumena 6 milioi eurotik beherakoa denez, 2004. urtean zerga helbideari dagokion Administrazioan eta hor bakarrik ordaindu behar zituen zergak. Horregatik, entitateak une horretan eskudun zen Administrazioan aurkeztu behar zuen lehen likidazioaldiko autolikidazioa, ZAEAn alegia, bertan baitzeukan zerga helbidea. BEZaren araudia aplikatuta, aldizkako autolikidazio horretan emaitza negatiboa bazen, konpentsazioa baino ezin zuen eskatu, entitatea ez baitzegoen BEZaren Legeko 116. artikulura bilduta. Bigarren hiruhilekoa amaituta, entitateak aldatuta zeukan ordurako helbidea eta, beraz, bai likidazioaldi horretako autolikidazioa eta bai hurrengoetakoak Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztu behar zituen. Azken likidazioaldian, zergapekoak aurreko likidazioaldietan eskatu ez zuen itzulketa eskatu dezake une horretan eskumena zuen administrazioan, hau da, Foru Ogasunean. ZAEAk ziurtatzen duenez, ez Ekonomia Itunean, ez BEZaren Legean, eta ez Foru Arauan, “ez da aurreikusten obligazio hori bera (4. hiruhilekoari dagokiona) aldi berean bete beharra dagoenik bi administrazio desberdinetan.” Hortaz, ekitaldi horretan kendu ezin izan ziren kuotak, BEZaren araudiagatik itzulketa

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

eskatu gabe geratu zirenak (1. hiruhilekoari dagokionak), sartu egin beharko dira, eta abenduaren 31n eskudun den Administrazioan eskatu ahal izango da haien itzulketa. ZAEAREN ustez, eskumen hori Administrazio bakar bati dagokio, Foru Administrazioari hain zuzen.

5. 2009ko martxoaren 2ko idazkian, ZAEA tematzen da bere alegazioan, alegia, gatazka ez dela onartzeko modukoa, Euskadiko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak emana baitu dagoeneko auzi horren gaineko ebazpena. Onartezintasun hori jada baztertu dugunez, ez gara horretara berriro itzuliko. Desadostasunaren funtsari dagokionez, ZAEAK 2008ko urriaren 30eko idazkian azaldu zuen arrazoibidea errepikatzen du bere funtsezkoenean: ez Ekonomia Itunean, ez BEZaren araudian, ez dela berariaz jasotzen saldoak administrazioen artean konpentsatzea, eta planteatutako auziari erantzuteko, ezinbestekoa zela Ekonomia Ituneko arauetara jotzea eta bertan ikustea zer esaten den konpentsazioen inguruan eta zein diren lege horien oinarrian dauden printzipioak. Dioenez, arau orokorra da “konpentsatu edo itzuli beharreko saldoak sortu diren administrazioen artean banatzen direla, eta, beraz, konpentsatu beharreko BEZaren saldoak ezin direla beste administrazio batzuetara aldatu.”

Hala ere, ZAEAREN iritziz, kasu honetan arau orokor horrek badu salbuespen bat, BEZaren araudia eta neutraltasun printzipioa errespetatu behar direnez gero; izan ere, araudi horrek ez du onartzen likidazioa egiterik “aldiak zatikatuta”. Ondorioz, zergadunari saldoa itzul diezaioten, ezinbestekoa da saldo hori administrazio berrira aldatzea; izan ere, zergaren araudiaren arabera, administrazio horretan baizik ezin aurkez daiteke halako eskaerarik. Adierazitako salbuespen hori, dio ZAEAK, administrazio berria BEZa ordainarazteko eskudun bakar bihurtzen den kasuetara mugatzen da, kasu honetan gertatzen den moduan —bi arrazoirengatik gertatu ere, egoitza aldatu delako eta eragiketa guztien bolumena ez delako sei milioi eurotik gorakoa—, aplikatzekoa den Ekonomia Itunak 27.Bat.Hirugarrena artikuluan xedatzen duenaren arabera. Horrelakoetan, subjektu pasiboak zerga helbideari dagokion Administrazioan bakarrik tributatzen duenez, helbidea aldatzeak berekin dakar beste Administrazio batean tributatu behar izatea. Halako kasuetan,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

“konpentsatu beharreko saldoak administrazio batetik bestera aldatu behar dira; izan ere, hala egiten ez bada, subjektu pasiboari ukatu egiten zaio konpentsatzeko eskubidea [...], agerikoa baita, bereziki hitz egiten ari garen entitatearen kasuan, zergadunak ez duela izan legezko aukerarik saldoa itzul diezaioten eskatzeko.”

ZAEAk dio arau orokor hori Ekonomia Ituneko 29.Bat artikuluan oinarritzen dela, eta artikulua horrek hauxe xedatzen duela: “Zerga-likidazioen emaitza dagokien administrazioei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean urtebete naturalean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita. Kontraprestazio horiek, hain zuzen ere, egindako ondasun-emate eta zerbitzuei dagozkie, batzuetan zergapetu eta beste batzuetan salbuetsi egingo direnak eta, salbuetsitakoen kasuan, kenketa eskubidea dakartenak.” Arau horretatik, ZAEAk ondorio hau ateratzen du: “Hau da, gure ustez, hizpide dugun kasuan, hauxe da koherenteena: helbidea aldatuta [...], bidezkoa da ezen, ordainarazteko eskumen osoa Gipuzkoako Foru Ogasunarena izanik entitatearen eragiketa bolumenak 6 milioi euroko kopurua gainditu ez duelako, Gipuzkoako Foru Ogasunak hartu behar dituela bere gain subjektu pasiboari konpentsatu beharreko zenbatekoak, eta zenbateko horiek ezin direla dagoeneko deduzitu jatorrizko zerga administrazioan (estatukoan).”

6. Gatazkaren ustezko onartezintasunaren aurka egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak Arbitraje Batzordearen hainbat ebazpen aipatzen ditu 2009ko martxoaren 3an aurkeztutako alegazio-idazkian, eta gaiaren mamiari dagokionez honako hau dio: alde batetik, “Administrazio batek ez du ezein kasutan BEZaren kredituak zertan itzuli edo konpentsatu haien sortzapenaren unean bera ez zenean ordainarazteko eskuduna eta, gainera, eskumen hori babesteko moduko ikuskapen ahalmenik ez zuenean”, eta bestetik, “ez zergaren araudian eta ez Ekonomia Itunean ez da aurreikusten zerga administrazio batek (Gipuzkoakoa kasu honetan) beste administrazio bati (estatukoari kasu honetan) dagokion zordun egoera subrogatu behar duenik haren aurrean gauzatu gabe dauden kreditu tributarioengatik (jasandako BEZagatik) zerga ordainarazteko eskumena aldatzen bada.”

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

7. Gatazka hau behar bezala planteatzeko, komeni da gogoratzea BEZaren sistemaren funtsezko zenbait alderdi, aski jakinak izan arren. Europako BEZaren ereduak “zergaz zergako kenkariaren metodoa” hartu zuen, berau sinpleagoa baitzen “balio erantsiaren kalkulua” batuketa edo kenketa bidez egiteko metodoa baino. Metodo hori honetan datza: subjektu pasiboak ondasuna edo zerbitzua ekoiztu edo banatzeko prozesuaren aurreko fasean jasandakoa kentzen zaio sortutako zergari. Eragiketa hori zergadunak aldian-aldian, hiru hilean behin edo hilero aurkeztu behar dituen autolikidazioetan egiten da, eta hortik aterako da ordaindu beharreko zerga, diferentzia positiboa bada, edo konpentsatu edo itzuli beharreko zenbatekoa, negatiboa bada. Azken zenbateko hori zergadunak administrazioarekin duen zerga kreditua da.

Sistema horrek bigarren planoan uzten du BEZaren berehalakotasuna; izan ere, zergaren sortzapenak eta kenkarirako eskubidearen sorrerak galdu egiten dute, neurri batean, beren banakotasuna, eta kontu bakar batean integratzen dira; kontu horretako saldoak sortuko du Ogasun Publikoarekiko zorra edo kreditua. Kontabilitate aldetik, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorrean islatzen da saldo hori, kontu hauetan hurrenez hurren: 4750 (“Ogasun Publikoa, BEZaren hartzekodun”) eta 4700 (“Ogasun Publikoa, BEZaren zordun”). Horregatik, BEZa zergen kategoria berezi bati dagokio, hau da, berehalakoak diren baina aldizka likidatzen diren zergen kategoriarik; esate baterako, zerga iruzurraren delituaren atalasea non dagoen zehazteko (Zigor Kodearen 305.2. artikulua).

Zerga zorra edo kreditua Ogasun Publikoarekin izango du zergadunak, erakunde horrek baitu BEZa biltzeko eta kudeatzeko ahalmena. Zerga hori harmonizatzen duen erkidegoko araudiak Europar Batasuneko estatu kideak soilik hartzen ditu ahalmen horren titular gisa, eta ez du onartzen jasandako BEZaren gainean kenkariak egiteko eskubidea estatu batetik bestera aldatzea: soil-soilik kenkaria egiteko eskubidea baliatu den estatu horretan jasandako kuotak dira kengarriak. Beste estatu baten aurrean, baldintza jakin batzuetan soilik lor daiteke kuota itzultzea, eta Espainiaren kasuan, BEZaren Legeko 199. artikuluan zehazten dira.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

8. Ekonomia Itunak ez du berariaz aurreikusten BEZaren saldoek (konpentsatzeko edo itzultzeko dauden zenbatekoak; hau da, kontabilitateko hitzetan, KPOren 4700 kontuko saldoa) sortzen duten arazo hori, hau da, zerga egoitza lurralde erkide batetik foru lurralde batera edo alderantziz aldatu dela-eta sortzen dena, bereziki lekualdaketa horren ondorioz helbide berriko administrazioak zerga eskumen guztiak bere gain hartu behar dituenean, kasu honetan gertatzen den bezalaxe. Itunak soilik dio administrazio eskudunen artean bana daitekeela likidazioaldi bati dagokion BEZaren gaineko zerga ahalmena, hau da, “sinkroniko” dei genezakeen banaketa egin daitekeela; ez, ordea, ondoz ondoko aldietako banaketa, zeina, aurrekoari kontrajarrita, “diakroniko” dei baitezakegu.

Ekonomia Itunak banaketa “sinkronikorako” ezartzen dituen oinarrizko arauak 29.artikuluko Bat eta Bost apartatuetan datozenak dira, eta, hain zuzen ere, horietan aipatu dituzte auzi honetako administrazioek. Gogora dezagun berriro zer dioten apartatu horiek:

“Bat. Zerga-likidazioen emaitza dagokien administrazioei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean urtebete naturalean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita. Kontraprestazio horiek, hain zuzen ere, egindako ondasun-emate eta zerbitzuei dagozkien, batzuetan zergapetu eta beste batzuetan salbuetsi egingo direnak eta, salbuetsitakoen kasuan, kenketa eskubidea dakartenak.”

“Bost. Bidezkoak diren itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan.”

Prezeptu horietatik ondorioztatzen den banaketa sistema negozio zifra erlatiboarekiko proportzioan likidatutako kuoten edo itzuli beharreko zenbatekoen banaketan oinarritzen da (Ekonomia Itunaren 27.Bat.Bigarrena artikulua), eta administrazio eskudunak erabat bereizten ditu. Ekonomia Itunaren 27.Bat.Hirugarrena artikuluan xedatutakoaren arabera helbide aldaketak ondorio gisa ez dakarrenean helbide berriko administrazioak eskumen guztiak bere gain hartzea (hizpide dugun kasuaren alderantzizkoa), ez da ezertxo ere aldatzen banaketaren

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

alderdi materialean. Ikuskatzeko eskumenak, ordea, batetik bestera aldatzen dira, Ekonomia Itunaren 29. artikuluko Sei b) apartatuko arauei jarraiki. Ekonomia Itunaren 29. artikuluko Bat apartatuak ez du inola ere babesten BEZaren saldoa administrazio batetik bestera aldatzea, eta horri buruz ez du ezertxo ere adierazten.

Banaketa “sinkroniko” deitu dugun horri dagokionez, BEZaren saldoak administrazioen artean inkomunikatzea lehen transkribatu dugun Ekonomia Itunaren 29. artikuluko Bost apartatuan xedatutakotik dator argi eta garbi.

Ez dago zalantzarik, bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegatzen duen bezala, BEZaren saldoak eskualdatzea onartuz gero zerga horren bilketa murriztuko dela, eta, modu paraleloan, Estatuko Administrazioa aberastuko dela, modu horretan Foru Aldundiaren esku utziko baitu hari dagokion pasibo fiskal bat; ondare aldaketa horiek, ordea, ez datoz bat zerga baliabideak zuzen banatzeko printzipioarekin, eta printzipio horrexetan oinarritzen da Ekonomia Ituna.

9. Hitz gutxitan esanda, ez BEZaren sistemak eta ez Ekonomia Itunak ez dute uzten saldoak administrazioen artean eskualdatzen. Gainera, zuzenbideko 4. eta 6. oinarrietan adierazi dugun bezala, printzipio edo “arau orokor” hori onartzen du ZAEAk, eta arrazoi handiak ematen ditu haren alde egiteko.

Alabaina, BEZaren saldoak ez eskualdatzeko arau orokorra indarrean dagoela aitortuta ere, uste du arau horrek baduela salbuespen bat, zerga hori kudeatzeko sisteman oinarritua, eta, Estatuko Agentziaren ustez, sistema horrek ezinezko egiten du eskualdatze hori, zergadunari jasandako BEZa kentzeko edo itzultzeko eskubidea behin betiko ez kentzearren.

Salbuespen hori, ZAEAREN iritziz, kasu jakin batzuetara mugatuta dago; hain zuzen ere, helbidea lurralde batetik bestera aldatu duen enpresak aurreko urtean egindako eragiketen bolumenak Ekonomia Itunaren 27.Bat.Hirugarrena artikuluan xedatzen den muga gainditzen ez duen kasuetara, “eta xurgapen edo zatiketa kasu jakin batzuetara”. Hau da, helbidea aldatu den gainerako kasu guztietan arau orokorra aplikatu behar da.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

Bada, ez gatoz bat ZAEAREN testiarekin, jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik. Lehenengoa eta funtsezkoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegatu duen bezalaxe, argumentu formalak, nola baitira BEZa kudeatzeko arauak, ezin direla jarri Ekonomia Itunaren eta BEZaren sistemaren beraren gainetik, baldin eta ez badute aukerarik ematen laugarren hiruhilekoari dagokion aitorten-likidaziora arte zergadunaren alde dagoen saldoa itzul diezaioten eskatzeko, eta kasu honetan bezala aurreikusita ez badago bi autolikidazio bi zerga administrazioetan aurkezteko aukera. ZAEAREN baieztapenak, hau da, saldoa eskualdatuko ez balitz zergadunari behin betiko kenduko litzaiokeela jasandako BEZa kentzeko eskubidea, badu petitio principii bat: kreditu hori administrazio berriaren baino ezin dela egikaritu. BEZaren neutraltasuna haustea, ZAEAREN iritziz horixe gertatuko bailitzateke saldoa administrazio berrira eskualdatzen utziko ez balitz, ez da benetan gertatzen, saldoa itzuli egiten baita, baina ez du administrazio berriak itzultzen, aurreko administrazioak baizik (Estatukoak, kasu honetan).

Egia esan, BEZAREN arauak ez dira baieztapen honen kontrakoak: Estatuko Zerga Administrazioa dela eskuduna, kasu honetan, helbidea foru lurraldera aldatu zenean itzuli zegoen BEZAREN saldoa itzultzeko. Kontua da arau horietan ez dela agertzen hipotesi hori, eta, horregatik, ez dutela ezartzen prozedura egokirik itzulketa aurrera eramateko. Beraz, auzi honetan bada hutsune bat araudian, lehenik eta behin, aplikatzekoak diren arau materialei dagokienez, nahiz eta hori bete daitekeen, lehen esan dugun bezala, Ekonomia Ituneko printzipioetatik eta zergatik bertatik abiatuta arau egokia zein den ondorioztatuta (ZAEAK "arau orokortzat" hartzen duena); eta, bigarrenik, araudian hutsunea dago arau materiala betetzeko jarraitu behar den prozedurari dagokionez ere, hain zuzen ere arau materialik ez dagoelako. Baina, jakina, halako prozedura araurik ez izatea ez da baliozko argudioa erregela horri dagokionez. ZAEAK "orokortzat" jotzen du erregela hori, eta horrek esan nahi du salbuespenak dituela. Alabaina, erregela absolutua da, Ekonomia Itunak segurutzat jotzen dituen BEZAREN funtsezko printzipioetatik eratorria baita.

Gure iritzia funtsatzen duen bigarren arrazoia da ez daukala justifikaziorik baieztatzeak ZAEAK aldeztu duen salbuespena helbidea aldatu den kasu oso

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

bakanetan soilik dela aplikagarria, hala nola hemen aztertzen ari garen kasuan, eta gainerako kasuetan arau orokorra dela aplikagarria. Subjektu pasiboan arteko alde horrek, eragiketa bolumen jakin bat gainditzeagatik edo ez gainditzeagatik gertatzen denak, neutraltasun falta bat ekarriko luke, zerbait ekartzekotan, BEZaren aplikazioan. Ondorioa ez litzateke izango hasieran eskudun zen administrazioak zerga itzultzea.

Ondorioz, bidezkoa da Arbitraje Batzordeak adieraztea kasu honetan Estatuko Administrazioari dagokiola itzuli gabe dagoen saldoa itzultzea, saldo hori sortu zen momentuan berak baitzeukan BEZa ordainarazteko ahalmena.

11. Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 16.5 e) artikulua "ebazpena betetzeko formula" ezartzera behartzen gaitu.

Ebazpen hau betetzeak esan nahi du, besterik gabe, Estatuko Administrazioak itzuli behar duela entitatearen helbidea Gipuzkoara aldatzean itzuli gabe zegoen saldoa, bi administrazioetako bakar batek ere ez baitu oraindik saldo hori itzuli. Kasu honetarako araurik ez dagoenez, hainbat bide formal izan daitezke: lehenik eta behin, Foru Aldundiak bere alegazio idazkian iradoki duena, hau da, onar dadila ZAEari urteko azken hiruhilekoari dagokion aitorpen-likidazioa aurkeztea, saldoa itzul dezan eskatzeko. Ulertu behar da aitorpen-likidazio hori bateragarria izango litzatekeela entitateak Gipuzkoako Foru Ogasunari aurkeztu beharko liokeenarekin. Are errazagoa litzateke zergadunak ZAEari idazki bat aurkeztea saldoa itzul diezaiola eskatzeko. Jakina, eskaera hori egiaztatu egin beharko litzateke, ZAEak bere alegazio-idazkiko lehen eskaeran egiten duen salbuespenaren arabera; are justifikatuagoa da hori, hari baitagokio, ebazpen honen arabera, saldoa itzultzea.

Bi konponbide horiek bat datoz; izan ere, azken batean, labur litezke esanez entitateak saldoa itzultzeko eskaera aurkeztu beharko diola ZAEari, eta hark onartu egin beharko duela; hori, berriro diogu, ez da eragozpen izango eskatutako itzulketa legearen arabera dela egiaztatzeko. Konponbide horretarako, ez da inolako oztopoa entitateak alegazio idazkian adierazi duena, alegia, eskubidea duela

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
18/2008	R11/2009	2009/06/19	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

Gipuzkoako Foru Aldundiari saldoa itzul diezaion eskatzeko; baina adierazpen horrek ez du eraginik sortzen egin zen prozedura esparrutik kanpo.

Logikoa denez, konponbide hori bi aldaeretako batean ere ez dator bat BEZa kudeatzeko sistema arautzen duten arauekin, eta hori ez da arlo horretan, lehenago adierazi dugun bezala, dagoen hutsunearen ondorio bat baino. Halako hutsunerik ez balitz, gatazka hau ez zen sortuko.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

Adieraztea Estatuko Administrazioa dela eskuduna “.....” entitatearen helbidea 2004an lurralde erkidean izan zen denboran sortutako saldoak hari itzultzeko. Dena den, hori ez da eragozpen izango Administrazio horrek saldoak egiaztatu ahal izan ditzan.

Ebazpen hau betetzeko, zergadunak saldo horien zenbatekoa itzultzeko eskaera aurkeztu beharko dio ZAEARI.